Zaldibar Elizateko Udala

gurekin euskaraz!

# EUSKAL HERRIKO TRIKITILARI GAZTEEN XXVIII. TXAPELKETA (2019)

## PARTAIDEEN ADINA

- SOINULARIA: Zaharrena, 2000an jaioa (13 urtetik 19ra)
  Gazteena, 2006ean jaioa
- PANDERO-JOLEA: Zaharrena, 2000an jaioa
  Gazteenak ez dauka mugarik behetik

## FINALA
## ZALDIBARREN Abenduaren 1ean – 17:30ean

1.- Partehartzaileek gai hauek jo behar dituzte:
- BIZKAIKO TRIKITIXA
- PORRUSALDA
- FANDANGOA
- ARIN-ARINA.

2.- 3.- Epaimahaiaren erabaki eta puntuazioak alda ezinak dira, eta horien aurka ere ezin da jo.
4.- Txapelketa honetan parte hartzeak oinarriak bete-betean ontzat eman direla esan nahi du.
5.- Partaideek lortutako puntuetan berdinketarik gertatzen bada, fandangoa jotzen lortutako puntuek apurtuko dute berdinketa. Hala ere, hor ere berdinketarik balego, kanporaketetako puntuazioak erabakiko luke sailkapena.
6 -Partehartzaileen hurrenkera kanporaketetako puntuen arabera egingo da, punturik gutxien lortu duen bikotetik hasi eta gehien lortu duenak azkeneko tokian jo arte. Hau da, kanporaketetan 8. gelditu denak joko du lehenengo Zaldibarko finalean, gero zazpigarrenak, eta horrela elkarren hurrenkeran.

## PARTE HARTZAILEEN KOPURUARen ARABERA KANPORAKETAK EGON DAITEZKE

1. KANPORAKETA ARAMAION
2. KANPORAKETA AZKOITIAN

1.- Partehartzaileek gai hauek jo behar dituzte:
- BIZKAIKO TRIKITIXA
- PORRUSALDA
- FANDANGOA
- ARIN-ARINA.

2.- Zozketa bidez eratuko da partaideen hurrenkera. Horretarako, parte hartzaileak saioa hasi baino ordu erdi lehenago egon behar dira kanporaketa egingo den tokian.
3.- Kanporaketak amaitu ondoren, puntu gehien lortu duten
8 bikoteek Zaldibarko finalean hartuko dute parte.
4.- Bikote bakoitzari 90 euroko bidaia-ordaina emango zaio kanporaketetan.
5.- Epaimahaiaren erabaki eta puntuazioak alda ezinak dira, eta ez dago horien aurka egiterik.
6.- Txapelketa honetan parte hartzeak berekin dakar oinarriak bete-betean ontzat ematea.
7.- Kanporaketako piezak ezin izango dira jo finaleko saioan.
8.- Izena ematen duten lehenengo hogei bikoteak hartuko dira kanporaketetarako.

ANTOLATZAILEAK: ZALDIBAR ELIZATEKO UDALA ETA KORAL ELKARTEA